

# TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Ostirala, 2012eko azaroaren 30a. IX. urtea. 2.443. zenbakia. [tolosaldea.hitza.info](http://tolosaldea.hitza.info)

## Urkizuko Gorostizu baserriaren inguruko karobia berreskuratu dute

Burdina taldeak egin ditu Tolosako auzoko ondarea konpontzeko lanak; harriarekin lan egiten duen Krespok berreraiki du karobia, jatorrizko forma errespetatuz

Burdinako Xabier Arrutik esandakoaren arabera, «elementu hauek zaharberrituz gure arbasoek zuten bizimodua eta lan egiteko modua erakutsi nahi ditugu» **6**



Burdina taldeko kideak eta Gorostizu baserriko jabeak, berreskuratutako karobiaren ondoan. I. TERRADILLOS

## Zelarain askatzeko eskatu dute ez ohiko batzarrean

Bilduko eta EAJko zinegotziek onartu dute mozioa, PSE-EEkoaren abstentziorekin **5**

## Dantzari Txiki Eguna egingo dute, etzi, Alegian

Bederatzi herritako dantzariak izango dira **6**

## Etxe kaleratzeen kontra azaldu da Tolosako Udala

Bildu eta Aralarrek aurkeztu dute mozioa **2**

Joxe Mari Garmendia Aktorea

## «Iñaki Beraetxek deitu zidan 'Itzalak' film laburrerako»

'Goenkalen' aritutakoa da ikaztegiatarra; hainbat film labur aurkeztuko ditu, gaur, herrian **6**



TERRADILLOS

**FUNERARIA VASCONGADA EHORZKETAK**  
902 402 900  
[www.funerariavascongada.com](http://www.funerariavascongada.com)

TOLOSA  
Kondeko Aldega, 5  
943 - 67 00 40

VILLABONA  
Larrea Polg., 34 - 1  
943 - 69 48 73

**2012**  
**txuleta festa**  
**tolosa**  
AB. | 6 | 7 | 8 | 9

**Irudia** Tolosa**GIZA KATEA ESKUBIDE SOZIALEN ALDE**

Lan duinarene eta eskubide zibilen alde mobilizazioak antolatu dituzte LAB eta ELA sindikatuek; Tolosan, Trianguloa plazatik abiatuta, giza katea egitekoak ziren atzo, baina eguraldia medio, Zerkausian elkartu ziren. Besteak beste, langabezia-

ren aurka, osasun publikoaren alde, lan duinarene alde nahiz Euskal Herriko lan esparru baten aldeko aldarrikapenak egin zituzten pankarten bidez. Gaur, manifestazioa izango da, 19:00etan, Donostiako Boulevardetik abiatuta. [ITZEA.URKIZU](http://ITZEA.URKIZU)

**Etxe kaleratzeak bertan behera uzteko eskatu du Tolosako Udalak**

**Bildu-Aralar udal gobernuak aurkeztutako mozioa onartu zuten astearteko osoko bilkuran**

**I. Urkizu**

«Etxe kaleratze guztiak, denbora mugagabeen, bertan behera uzteko» eskatu du Tolosako udal gobernuak, mozio baten bitartez. Besteak beste, «etxebizitza eskubide soziala» dela argudiatuz, eta etxe kaleratzeetan «gizarte osoaren arazoa» dela defendatuz, legediak aldatzeko bat jasan behar lukeela uste dute Bilduk eta Aralarrek.

Barakaldon bere buruaz beste egin zuen Amaia Egañaren kasua hizpide izan zuen mozioak, eta

honen ondoren Espainiako Gobernuak idatzitako dekretua «eskasa» dela azaldu zuten udal gobernuak kideek: «Kaltetuen zati txiki baten egoerari eragiten dio, eta ez dio arazoari benetako konponbiderik ematen».

Horrela, beraz, Bildu eta Aralarreko zinegotzien botoekin onartu zuten mozioa; EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuen gai beraren inguruan, eta besteak beste, legediarekin loturiko aldatzeko proposatu zituzten.

**Eskubide sozialen alde**

Udal gobernuak aurkeztutako mozioak, etxe kaleratze guztiak, denbora mugagabeen, bertan behera uzteko eskaria egiten du; halaber, alokairu erregimenean gertatzen direnak ere bertan behera uztea eskatu dute.

Izan ere, «etxebizitza eskubide

soziala» dela defendatuz, «erakundeek bitartekaritza lana egin behar lukete alokairu sozialaren bitartez», beren arabera. «Interes ekonomikoak gizakien gainetik jartzen dira, eta alderantziz izan behar luke», azpimarratu zuen alkateak.

Horregatik, finantza erakundeek hutsik dituzten etxebizitzak erakunde publikoen esku uztea ere eskatu du udal gobernuak, hauek alokairu sozialaren bidez herritarren esku jartzeko.

Bide beretik, etxe kaleratzeak saihesteko, finantza erakundeekin harremanetan jartzeko konpromisoa hartu dute mozioaren bitartez, «informazio faltari aurre eginez». Aipatzekoa da, Ibai Iriarte alkateak duela bi aste inguru dekretu bat sinatu zuela. Ondorioz, banketxeek etxe kaleratze bat gertatu baino bi aste lehenago jakinarazi behar luke, Tolosako Udalarri, guztia.

• [tolosa@hitza.info](mailto:tolosa@hitza.info)

**↓ Iragarki laburrak****LAN ESKAINTZAK**

**Etxeko lanetarako.** Etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Autoa badauka. Interesa duen edonork, dei dezala honako telefono zenbakietara: 943 696882 / 606 521992.

**Gutuna****Euskaraz bizitzeko, euskarazko komunikabideak behar ditugu**

Larunbatean, abenduak 1, Euskaraz bizi nahi dugun leloa oihukatuko dugu euskaltzaleok Donostiako kaleetan. Euskaraz jarduten dugun hedabide ez publikoak batzen dituen HEKIMEN elkartearen izenean, Kontseiluak deitu duen manifestazioan parte hartzea deitu nahi zaituztegu.

Euskal Herri euskalduna nahi badugu, euskaraz bizi nahi badugu, komunikabide esparru indartsua izatea ezinbestekoa da. Euskal Herrian azken hamarkadatan gizarte hedabide sare zabal sortu da: 600 bat langile gara sektorean eta ehunka mila pertsonarengana heltzen gara. Esparru txikia da gurea baina, aldi berean, indartsua eta ezinbestekoa euskaraz bizi nahi badugu.

Administrazioa, hezkuntza eta hedabideak zutabe funtsezkoak dira hizkuntza garapenean. Baliabideei dagokionez, administrazioan eta hezkuntzan indar handia jarri da azken hamarkadatan, euskarazko hedabide publikoetan ere bai. Baina askoz gutxiago hedabide ez publikoetan. Euskal gizarte moderno eta kohesionatua eratzeke, hizkuntza-komunitate osoa uzteko, gizarte hedabide sare zabal behar bezala babestu behar dugu.

Euskararen hiztun komunitateak behar duen eremu komunikatiboa sendoa garatzeko, el-

karlanaren bidea jorratu dugu urte guzti hauetan euskarazko komunikabideek. Elkarlan hori bideratzeko, HEKIMEN elkarte sortu berri dugu. 50 komunikabide baino gehiago batu gara, euskaraz bizi ahal izateko euskaraz bizi ahal izateko garrantzitsuak garelako aldarrikatzeko.

Euskaraz bizi ahal izateko, ezagutza eta borondateaz gain, ezinbestekoak dira baliabideak. Euskarazko eremuak behar ditugu. Hedabideen kasuan, gure herrietan, euskal gizarteak, Europan, munduan... gertatzen denaz informatuko gaituzten komunikabideak behar ditugu. Teknologia berriek eta Internetek ekarri dituzten aldaketetara egokitutako komunikabideak.

Komunikabideontzat ez dira garai onak, krisi hotsak nonahi entzuten dira. Baina ilusioz ari gara beharrean, bizi dugun egoera gaitzari elkarrekin erantzunez. Euskal gizarteak garai berriak bizi ditu, testuinguru egoera euskararen normalizazioan behar ditugun aldatetarako emateko. Euskarazko komunikabideek, azken hamarkadetan bezala, gure ekarpenarekin jarraituko dugu. Guztiok euskaraz bizitzeko aukera izan dezagun.

• **Iban Arantxabal (Tokikom)**, **Iban Arregi (Berria)**, **Joseba Igerabide (Xalao Telebista)**, **Idoia Iparragirre (Gaur 8-Zazpi Haizetara)**, **Berdaitz Goia (Argia)**, **Iñaki Uria (Iñamika Telebista)**, **Jon Mikel Zabalegi (Gazteberri)** eta **Aitziber Zapiain (Euskal Irratiak)**.

Hekimen Euskal Hedabideen Elkarte Zuzendaritza Batzordearen izenean.

**Bihotz-biriken suspertze ikastaroa eskainiko du DYAK****I. Urkizu**

Oinarritzko bihotz-biriken suspertzea eta Kanpoko Desfibradore Automatikorako ekipoaren erabilera ezagutzeko ikastaroa antolatu du DYAK, Tolosan, datorren astelehen eta astearteko.

Eduki teorikoak nahiz praktikoak eskainiko dituzte, eta antolatzaileek, «ezaguera errazak eta oso erabilgarriak» eskainiko dituztela azaldu dute. Ikastaroak 80 euroko prezioa izango du, eta 18:30etik 21:00etara izango da, DYAK Larramendin duen egoitzan. Ikasle kopurua mugatua izango da, «ikastaroaren kalitate bermatzeko», eta interesa duenak, 943 46 46 22 telefonora deitu behar du, izena emateko.

**Sagarra protagonista izango da, bihar, KM 0 egitasmoan****I. Urkizu**

Urteko azken KM 0 izango da, bihar, eta ohi bezala, garaian garaiko produktuak erabiliko dituzte Zerkausiko sukaldetan. Horrela beraz, sagarra izango da bihar, prestatuko duten mokadutxoaren oinarria.

Goizean goiz, Jokin Zabala sukaldaria ariko da beharrezko dituen produktuak erosten. Amaia-Villabonako Iturri Goxo jate txeko sukaldaria da bera, eta erosketak egin ondoren, Zerkausian ariko da prestaketa lanetan.

Sagar purea ardo beltzetan egozitako txahal masailarekin prestatuko du, eta 12:00ak aldera bertaratuko herritarrei banatuko dizkie mokadua.

**EUSKO JAURLARITZA**  
**GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

# 15. urteurrenean, kultur ospakizunekin amaituko du 2012a Bonbereneak

Azken hamarkadako lanen bilduma eta Poca Tripa txarangaren diskoa dira zigiluaren argitalpen berrienak

## Itzea Urkizu

Duela hamabost urte hasi zuen, Bonbereneak, bere ibilbide oparoa, eta berau ospatzeko, urtea amaitu bitarte, kulturaz zipiritindutako egitaraua antolatu dute.

Pasa den asteartean Pirritx eta Porrotxek hainbat haur bertaratu zituzten San Esteban auzoko eraikinera, eta bihar bertan, The Sparteens eta Anai Arrebak taldeen kontzertua izango da 22:30ean.

Astebururo izango dira musika emanaldiak, eta besteak beste, Elkano Browning Cream, Makala DJ, Naiz Roxa, R, Cobra, Barrua

## ↓ Egitaraua

### AZAROAK 30, GAUR

■ 22:30. Futbol txapelketa.

### ABENDUAK 1, BIHAR

■ 22:30. Kontzertuak: Anai Arrebak eta The Sparteens.

### ABENDUAK 3, ASTELEHENA

■ Zea Mays-en *Sortuz, grabitatearen aurka* diskaren berrargitalpena kalean.

### ABENDUAK 4, ASTEARTEA

■ Bad Sound System taldearen diska berria kalean.

### ABENDUAK 5-9

■ Bonberenea Ekintzak Durangoko azokan izango da, Barrenkale 11n.



Pasa den asteartean izan ziren, Pirritx eta Porrotx, Bonberenean. E. MAIZ

Truk, Glaukoma eta Atila y los Unos taldeek eskainiko dituzte, Bonberenean, urteko azken kontzertuak.

Horrez gain, ordea, nabarmen-tzekoak dira Bonberenea Ekintzak zigiluaren argitalpen berrienak. Poca Tripa txarangak, esate-

rako, bere 50. urteurrenaren harira, disko eta liburuak aurkeztuko du datorren abenduaren 21ean, eta *Bomberenea ekintzak 2002012* eta *Bomberenea* argitaratu du, azken hamarkada errepatatuz. Gainera, Durangoko azokan ere postua jarriko du Bonbereneak.

# Zirkoa Tolosan, udalaren eta merkatarien eskutik

Hurrengo asteko jai egunak probestuz, Tolosa & Co eta udalak antolatu dute haurrentzako jarduera

## I. Urkizu

Datorren abenduaren 6tik 9ra bitarte, eta jai egunak probestuz, Tolosako nahiz inguruko haur eta gaztetxoek zirkoak gozatzeko aukera izango dute; Il Circo Italiano zirkoa Tolosan izango da lau egunez.

Tolosa & Co merkataria eta ostalarien elkarteak, eta Tolosako Udalak, elkarlanean antolatu dute jarduera, eta hainbat saio eskainiko dituzte, guztiak ere, San Esteban auzoan jarriko duten karpa erraldoian.

Abenduaren 6an, 19:00etan izango da lehen saioa. Ostiralean, berriz, hilak 7, 17:00etan nahiz 19:30ean izango da zirkoa ikusgai, eta baita abenduaren 8an ere. Azkenik, abenduaren 9ko saioak 12:00etan eta 17:30ean izango dira.

Sarrerei dagokienez, 10 euro ordaindu beharko dira sarrera arruntak. Il Circo Italiano zirkoaren emanaldia palkotik ikusi nahi dutenek, berriz, 15 euro ordaindu beharko dute sarrera.

## Zirkorako sarreren zozketa

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak, Il Circo Italiano zirkoa ikusteko 40 sarrera zozkatuko ditu 10 harpidedunen artean; irabazle bakoitzak, beraz, 4 sarrera eskuratuko ditu.

## TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA egunkariak 40 sarrera zozkatuko ditu

Parte hartu nahi duten harpidedunek, 943 65 56 95 telefonora deitu beharko dute, eta harpidedun zenbakia emanda sartuko dira zozketako zakuan. Bi egunetan soilik parte hartu ahalko da: asteartea eta asteazkena. Irabazleen izen-abizenak, abenduaren 6ko egunkariko papereko edizioan argitaratuko dira.



Tolosa & Co elkartereko Juanjo Ruiz eta Hasier De Los Rios zinegotzia. R. CALVO



sarrerak

### Sariduna

2 sarrera  
Azaroak 11 - Igandea  
18:00  
Donostiako funben

**LAGUN ARO GBC**  
Unicaja  
saskibalo partida

**Haritz Arana Saralegi (Tolosa)**

Sarrerak jasotzeko, HITZAren Tolosako egoitza hitza pasa.









Pello Zelarain preso billabonatarren askatasuna eskatu zuen udalbatzak, atzo egindako ez ohiko bilkuran. A.I.

## Pello Zelarain presoaren «bahiketa» amaitzea eskatu du udalbatzak

Ez ohiko bilkuran preso billabonatarren askatasuna eskatu dute, senide eta lagunei babesa adieraziz

**Asier Imaz** Amasa-Villabona

Amasa-Villabonako udalbatzak Pello Zelarain preso billabonatarren berehalako askatasuna eskatu zuen atzo, ez ohiko bilkuran onartutako mozioan. Bildu eta EAJren zinegotziek bat egin zuten eskariarekin, eta mozioa bera, Arartekoari, Villena espe-

txeko zuzendaritzako kideei, Espetxe instituzioetako arduradun gorenari eta Gasteizko Legebiltzarreko lehendakariari bidaltzeko konpromisoa hartu zuten.

Villabonako presoaren senide eta lagunei elkartasuna eta babesa azaldu ondoren, Pello Zelarain «bahiturik» dutela salatu zuen udalbatzak: «Espainiako Auzitegi Nazionalak askatasuna eman arren, espetxe zuzendaritza erabaki hori oztopatzen ari da behin eta berriz». Egoera ulertzea zaila dela azaldu zuen udalbatzak, baina baita horren aurrean geldirik ez direla egongo ere. Espainiako gobernuaren jarrera ere salatu

nahi izan zuten: «Euskal Herriak bizi duen gatazka politikoari amaiera emateko urratsak eman beharrean, mendeku politika eta oztupoak besterik ez ditu jarritzen». Euskal Preso Politikoen Kolektiboa eta Pello Zelarain, mendeku politika hori pairatzen ari direla salatu zuten. Konponbidea lortzeko, Espainiako gobernuari urratsak eskatu zizkion Amasa-Villabonako udalbatzak.

Herriarrak, berriz, ostegunero egiten den ekimen isilarekin bat egitera deitu zituzten. 19:00etan Gurea aurrean elkartzen dira, Zelarainen etxeraino giza katean joateko.

PSE-EEren zinegotzi bakarrak, Maria Luisa Arijak, mozioaren aurrean abstentzioa bozkatu zuten. Mozioarekin ados egon arren, bahiketa hitzarekin ez zertorrela bat esan zuen Arijak. Zelarainen senide eta lagunek, Galder Azkue alkateak bezala, preso billabonatarra bahiturik zegoela berretsi zuten: «Auzitegi Nazionalaren erabakia esku artean dauka Pello. Duela lau hilabete jaso zuen, eta bertan adierazten denaren arabera, kalean beharko luke. Hori bahiturik egotea ez baldin bada...».

## Euskararen Eguna Villabona, Berastegi eta Ikaztegietan

Kontseiluak manifestazioa antolatu du bihar Donostian; mobilizazioarekin bat egin du UEMak

**A. Imaz**

Abenduaren 3an, astelehenean, Euskararen Nazioarteko Eguna ospatuko dute eskualdeko hainbat herririk. Horien artean, Ikaztegieta, Villabona eta Berastegi. Eguna girotzeko hainbat ekitaldi antolatu dituzte.

Villabonan bi dokumental ikusteko aukera egongo da, 21:00etatik aurrera, Gurea zinemaren *Euskararen berreskuperapena* eta *Ispiluak* proiektzioak ikusteko sarrera doan izango da.

Berastegin, mahai jolasak eta jolas kooperatiboak egingo dituzte 16:30ean, eskolako gimnasioan eta jangelan. 17:00etan, Basurde Elkarrean kafe tertuliari ekingo diote, eta 18:30ean, euskal kantuen kantaldia egingo dute apartakaleku azpiko lokalean.

Ikaztegietan, arratsaldean euskararekiko konpromisoa sinatuko dute eskolan; ondoren, Euskara abestia kantatuko dute, soka

salto eta talde jolasen aurretik. Udalak, guztiarentzat txokolate beroa prestatuko du.

**30 urte eta hamaika galdera**

UEMA, udalerrri euskaldunen mankomunitateak, eskutitza argitaratu du Euskararen legearen 30. urteurrenaren harira. Hainbat galdera egiten ditu UEMak hausnarketa moduan, legea guztiz osoa ez dela aldarrikatzeko: «Zergatik ez du euskararen herria bere osotasunean hartzen? Zergatik da herrena? Zergatik ez du aintzat hartzen udalerrri euskaldunen egoera soziolinguistiko berezia? Zergatik uzten du euskararen normalizazioa borondatearen mende? Eta, zergatik bultzatu behar dugu herritarrok euskararen normalizazioa?». Kritika suntsizaitetik haratago joan nahi dutela diote UEMatik, galdera hauei erantzunak emanaz. Galdera hauen erantzunak, eta hausnarketak, [www.uema.org](http://www.uema.org) helbidean zintzilikatu dituzte.

Bihar, Kontseiluak deitutako manifestazioan parte hartzeko deia egiten du UEMak. Mobilizazioa 17:00etan abiatuko da Anoeta estadioaren ondotik. Ibarrako Udalak ere, herritarrei Donostira joateko deia egin die.

## Migel eta Mikel Zalakain omenduko dituzte, etzi

**A. Imaz** Amasa-Villabona

Gaur 22 urte beteko dira Migel Zalakain Odriozola euskal preso zendu zela, Martuteneko kartzelan. 2010eko ekainaren 24ean, berriz, Mikel Zalakain bere semea Korsikan minbiziak jota hil zen. 25 urte zeramatzen Villabonatik ihes eginda, munduan zehar.

Amasa-Villabonako ezker

abertzaleak, abenduaren 2an, etzi, aita-semeak omenduko ditu Belabietako parajeetan. Ekitaldia 12:00etan hasiko da.

Herriarrak omenaldira gonbidatu dituzte ezker abertzaleatik, eta «herri honek aurrera egiteko determinazioa» duela aipatu dute, Telesforo Monzonen hitzak gogoratu: «... lepoan hartu ta segi aurrera».

**Mauka** GAIURKO ESKAINTZA

**Asteburu bat Urrarena landetxean**

URRARENA LANDETXEA  
Lur kalea 27  
48001 / GORBEIA / ZUBI  
VILLABONA  
Tf. 948.712.100  
mauka@gmail.com  
www.casasurra.com

**Prezioa 295€**

**berria**

**www.mauka.eu**

**ARABA - ALAVA**  
Zuko Koadrila | Cuadrilla de Zoko

- Urtegia: bain deia 50 urte...
- Gasteiz eta Jauregiak
- Etnografia Zuzen
- Mitologia Zuzen
- Zigoitiko Erromantika
- Zoko eta Dibulazioak erromantikoak
- Arriko-Saganditza
- Harago hitzlekuak • Gasteiz

**Gorbeia**  
Urte 1900an  
945 243 828 645 844 087

**BIZKAIA**  
Gorbeialdea  
Anatza-Nerbioi

- Nekari eremian gara
- Gorbeialdea magalen
- Galdakoa eta Ingorak
- Harago

**EUSKADI** **Bizkaia** **Gorbeialdea**

[www.gorbeiauskadi.com](http://www.gorbeiauskadi.com)

Joxe Mari Garmendia ◉ Aktorea

# «Aktore aritzea aldaketa handia izan da, baina ez diot garrantzia berezirik ematen»

Imanol Garcia Landa | Ikaztegieta

Ekitaldi berezia antolatu dute gaurkorako Ikaztegieta, Kulturaldia egitarauaren barruan. 20:00etan Jose Mari Garmendiak (Ikaztegieta, 1947) parte hartzen duen zenbait film labur emango dituzte udaletxearen behe solairuko aretoan: *Itzalak*, *Hara nun ziran...?!*, *Lubaki* eta *Esna gaitzen*. Bertan izango dira Garmendia eta Iñaki Beraetxe aktorea, aurkezpen lanak egiteko. Ondoren, Herri Ostatuan afaria egingo dute, 21:00etan hasita, eta afalostean, Ugane auzoko Unai Urretabizkaia eta Jone Garmendiak kantaldia eskainiko dute.

**Goenkale telesailan hasi zinen aktore lanetan, Antonio pertsonaia egiten. Nola sortu zen aukera hori?**

Legorretako festa batzuetan, Alex Ezkurdia *Goenkale*ko zuzendariak telefono zenbakia eskatu zidan. Bere aita Ramonekin harrimana nuen. Nire zenbakia zertarako behar zuen galdetu nion, eta berak *Goenkale*n sartzeko zela erantzun zidan. Nik erotuta zegoela esan nion eta berak alperrik ari nintzela, deituko zidala. Eta hala, pare bat astetara deitu zidan eta hara joan nintzen gustura, umea zapata berrieekin bezala.

**Ondo moldatu zinen giro horretan?**  
Pixkana-pixkana joan nintzen giro horretan sartzen, eta oso gustura. Grabatzera joaten ginenean, oso goiz egon behar izaten genuen bertan, baina, egia esan, oso gustura aritu nintzen *Goenkale*n egin nituen bost urte horietan. Gure lana normalean lehenengoa egiten genuen, zuzendariak ez zigun eszena errepikarazten.

**Zaila izaten zen gidoia ikastea?**  
Hasieran esaten nien ea nola ika-



I.G.L.

siko nituen esan beharrekoak, sinatzeko ere pentsatu beharra izaten nuela eta... Azkenean, azkar batean ikasten nituen; denetara moldatu egiten zara.

**Jendeak kaletik ezagutuko zizun, ezta?**

Oraindik ere esaten didate. Ordizian, azokako postu batean zegoen emakume batek esan zidan gure garaiak utzi genuenetik ez zuela *Goenkale* ikusten.

**Eta film laburretan parte hartzeko aukera nondik etorri zen?**

Iñaki Beraetxe *Goenkale*n ezagutu nuen eta berak deitu zidan parte hartzeko. *Itzalak* film laburra egin genuen eta zazpi sari inguru jaso zituen. 2007an izan zen hori. Gero, beste hiru film laburretan parte hartu nuen. Ni oso gustura joaten naiz horrelako lanak egite-  
ra.

**Zer moduz sentitzen zara aktore moduan?**

Egia esateko, ez diot garrantzia berezirik ematen. Basoan lana egindakoa naiz, mandoarekin eta motozerrarekin. Aktore aritzea aldaketa handia izan da. Ez dut ikasketarik egin, eta zuzendariak esandakoa egiten saiatu naiz, nolako begirada jarri behar dudana, esaterako.

**Zure burua pantailan ikusten duzunean, zer inpresio hartzen duzu?**

Eszenak nola egin nituen gogoratzten dut. Batzuei ez zaie gustatzen beraiek egindakoa ikustea, baina niri interesgarria iruditzen zait.



■ **Bideoa.** *Itzalak* film laburra ikusteko, QR kode hau irakurri.

## Alegiako Gaztetxearen 25. urteurrena ospatzen hasteko, musika hizpide

80ko hamarkadan musikaren arloan aritutakoek parte hartuko duten mahai ingurua antolatu dute

sa Morau, Okene Abrego eta Jozi Ubeda ariko dira hizlari moduan eta moderatzaile lanetan Koldo Otamendi kazetaria izango da. Alegiako Gaztetxean bertan egingo dute solasaldia, eta 19:00etan hasiko da.

I. Garcia Landa | Alegia

Alegiako Gaztetxearen 25. urteurreneko ekitaldiei hasiera emango diete gaur. Musikari buruzko mahai ingurua egingo dute 80ko hamarkadako musika eszenakide izandakoak eta egun musika munduan diharduten musikariak. Iñaki Nabarro, Andoni Tolo-

**Garagarroa eta kontzertuak**

Mahai inguruaren ondoren, garagarroa azoka antolatu dute; bertako garagarro artisauak ere dastatzeko aukera izango da. Ondoren saiheski eta gaitzaina jatea egingo dute, eta, egunari amaiera emateko, 22:30ean kontzertuak: Okene Abrego & Mariano Hurtado, Morau eta Petti.

## Alegiako kaleak dantzari txikiz beteko dira igandean

Sutarri dantza taldeak Dantzari Txiki Eguna antolatu du; bederatzik herritako dantzariak gonbidatu dite

dira Larraitx auzoan zehar. Bertako plazan herri bakoitzeko talde batek dantza bana eskeiniko du. Ondoren herriko frontoian haiaiketako egingo dute.

Ondo jan eta gero, Kale Behera joango dira kalejiran. Bertan herri bakoitzak beste dantza bana egingo du. Plazan, hasieran denak batera agurrak dantzatuko dute eta bukaeran fandangoa eta arin arina. Eguraldi txarra izango balitz, egitarau osoa frontoian egingo dute.

**'Barrura begiratzeko leihoak'**

Beste ekitaldi bat ere izango da asteburuan Udazkenean Kultura egitasmoaren barruan. Bihar eta etzi, bi egunetan 22:00etan, *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentala ikusi ahaliko da kultur etxean.

I. Garcia Landa | Alegia

Udazkenean Kultura egitasmoaren barruan, igande honetan Dantzari Txiki Eguna antolatu dute Alegian. Herriko Sutarri dantza taldea da antolatzailea, udalaren laguntzarekin, eta Alegiako dantzari txikiez gain, beste bederatzik herritakoak izango dira: Altzo, Andoain, Anoeta, Iruña, Larraul, Lizartza, Tolosa, Urniet eta Villabona.

Egitaraua 10:00etan hasiko da tan eta eskolako jolaslekuan elkartuko dira. Horren ondoren, 10:30ak aldera kalejiran abiatuko

**Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN**

hilberriak  
urteurrenak  
eskertzak

**HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena**

Urkizuko Gorostizu baserriaren lurretan dagoen karobia berreskuratuta dute; Burdina taldeko kideak eta Josetxo Krespo altsasuarra aritu dira lanean; Tolosan zutik dagoen azkenetako karobia denez, balio historiko handia duela diote.

# Tolosan geratzen den azken karobia

Iñigo Terradillos

**E**rakusten duen edertasuna ukaezina da. 500 metroko altueran kokaturiko balkoi ederra da, eta bertatik Tolosaldea eta Beterriko mendiak, edota Nafarroakoak, eta itsasoa bera ere begizta daitezke. Ikuspegi zoragarri hauei, paseotxoak egiteko ibilbide politikak edota landa auzo baten berezko ezaugarriak gehitu behar zaizkie. Urkizuk, baina, baditu hain agerikoak ez diren bestelako altxorrek ere. Gorostizu baserriaren lurretan dagoen karobi zaharra, esaterako.

Duela gutxira arte, ordea, altxorretik gutxi zuten karobiak. Baserriko jabeek, Joxe Mari Etxeberriak eta Ixiar Otamendik, azaldu moduan, «erabat hondaturik zegoen, eta zikinkeria ugari zuten pilatuta». Elementu hark izan zezakeen balioaz ohartuta, Burdina taldearekin harremanetan jarritza erabaki zuten, berreskuratzea merezi zuten ala ez jakite aldera.

Ondare historikoaren berreskurapenean lan egiten duen boluntario taldea da Burdina taldea. Xabier Arruti *Txanka* taldeko kideak azaldu moduan, euren helburua «elementu hauek zaharberrituz gure arbasoek zuten bizimodua eta lan egiteko modua herritarrei erakustea da, gure historiaren zati hori ahanzturan



Urkizuko Gorostizu baserriaren lurretan dagoen karobia, eraberritirik. I.T.

gera ez dadin». Asko dira Tolosaldean nahiz Leitzaldean eginak dituzten lanak. Azkena, Leitzarango Tolare meatzean eginikoa. Hainbat karobi eta meategi zaharberritu berri dituzte bertan.

«Berreskuratzeak merezi du» Bada, Urkizura joan ziren karobia gertutik ikustera, eta ez zuten zalantzarik izan: «Oso egoera txarrean zegoen arren, berreskuratzeak merezi zuela esan genien;

egia esan, ia guztiari esaten diogu baietz, gordetzen duten balioerengatik», aitortu du Arrutik.

Burdina taldeko kideak lanean jarri ziren, eta karobiaren barruan urtetan pilatuta zegoen zikinkeria guztia atera, eta garbitu egin zuten. Hori ez zen nahikoa, ordea, karobia erabat hondatuta eta erorita baitzegoen: «Zati bat mantendu egin zen arren, gehiena erorita zegoen, eta berreraikitzea eskatzen zuten horrek, ha-

riari banan bana jarri». Burdina taldeko kideak adierazi moduan, lan «profesionalagoa» eskatzen zuten horrek, eta orduan, harriarekin lan egiten duen Josetxo Krespo altsasuarrarekin jarri ziren harremanetan. «Hainbat lan egin izan ditu guretzat, emaitza bikainarekin, beraz, lan hau egiteko pertsona egokia iruditu zitzaigun», azaldu du Arrutik.

Krespo bi astez egon zen egunerolanean, baserrian bertan lo egi-

nez. Karobiaren jatorrizko forma zainduz berreskuratzea lortu zuten. Lan horretan laguntzaile izan zuten baserriaren jabeen semeetako bat.

## Emaitzarekin «oso gustura»

Karobiak egun duen itxurarekin «oso pozik» daude jabeak. Dagoneko hainbat bisitari izan dituzte, tartean, Foru Aldundiko ordezkariak, eta elementuaren balioa nabarmendu dute.

Burdina taldeko kideak azaldutakoaren arabera, zonalde hori gehiegi aztertu ez duten arren, bertakoek aipatu dietenez, Tolosan geratzen den azkenetako karobia da. «Lehen karobi asko zuedela azaldu digute baserriarrek, eta urtean maiz pizten zituztela, egurra eta harria botaz karea lortzeko. Baina denborarekin, guztiak desagertu egin omen dira, beraz, Urkizuko honek, gure ustez, balio historiko handia du».

Baliteke, Urkizun zutik geratzen den azken karobia ez izatea, Gorostizu baserrikoek Burdina taldekoen laguntza eskatu baitute beste elementu bat aztertzeko. Ezkutuan ziren ondare historikoek auzoaren balioa handituz jarraituko dutela dirudi, beraz.



■ **Bideoa.** Ikus karobia berreskuratzeako lanean egin duen bideoa.



## harpidedun izateak badu saria irabazleak

<p><b>1 Gorrotxategi sorta</b> Bost turrol sorta</p> <p>Nati Murua Artola (Alegia) Inma Lopetegui Etxeberria (Irura) Xabier Zubeldia Ugartemendia (Tolosa) Joxe Antonio Artola Otamendi (Tolosa) Nekane Eraso Otxandorena (Zizurkil)</p>  <p style="font-size: small;">Eskara egiteko, hilabete: Tel: 943 67 07 27 / 943 65 12 26 Plaza zaharra, 7. TOLOSA <a href="http://www.gorrotxategi.com">www.gorrotxategi.com</a></p>	<p><b>2 Fronton jatetxea</b> Bi laguntzako bazkaria edo afaria</p> <p>Mikel Urkola Roteta (Anoeta)</p>  <p style="font-size: small;">Eskara egiteko, 2 hilabete: San Frantzisko ibiltoxia, 4 Tolosa Tel: 943 65 29 41 <a href="http://www.restaurantefronton.com">www.restaurantefronton.com</a></p>
<p><b>3 Berria 2013 agenda</b> Bi agenda</p> <p>Ainhoa Aretxabaleta Aparicio (Tolosa) Bernardo Collado Muñoz (Tolosa)</p>  <p style="font-size: small;">Saridunek ebean jasoko dute agenda</p>	<p><b>4 Eureka zientzia museo</b> Bi laguntzako bina sarrera</p> <p>Aiazne Ruiz Luluaga (Anoeta) Begoña Aituna Unsain (Lizartza)</p>  <p style="font-size: small;">Saridunek bina sarrera izango dituzte leihatilan, 2 hilabetez <a href="http://www.eurekamuseoa.es">www.eurekamuseoa.es</a></p>

**TXOKOR hitza**



**Argitaratzailea:** Tolosa Herria Hedabideak SM  
**Lege Gordailua:** SS-0398-03  
**Zuzendaria:** Rebeka Calvo  
**Egoitza nagusia:** Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.  
**Telefonoa:** 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18  
**Leitza:** Herriko plaza, 1. 687 410 118  
**E-posta:** tolosaldean@hitza.info  
**Webgunea:** tolosalde.hitza.info

**Zuzendariordea:** Eneritz Maiz. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.  
**Publizitate:** 661 678 818 tolosa@bidera.eu  
**Tolosa:** 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info  
**Villabona:** 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info  
**Anoeta:** 687 410 022. anoeta@hitza.info  
**Ibarra:** 687 410 118. ibarra@hitza.info  
**Alegialdea:** 687 410 034. alegialdea@hitza.info  
**Leizaldea:** 687 410 118. leizaldea@hitza.info

**Tolosa Herria  
Hedabideak  
SM-ko kideak:**

**BERTAKO  
HEDABIDEAK**



**Galtzaundi  
euskara  
taldea**



eta Tolosaldeko  
eta Leizaldekoko  
beste 77 eragile

**Hitza-k  
Bai  
Euskarari**



**'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Ibarra, Irura, Larraul, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

**Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua** (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

**Farmaziak**

**GAUR**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Iturrioz, I.  
Euskal Herria, 3. 943 67 09 15  
■ **Leitza.** Erbiti, O.  
Lizarraga kalea, 7. 112.

**BIHAR**

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L.  
Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.  
■ **Leitza.** Erbiti, O.  
Lizarraga kalea, 7. 112.

**ETZI**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, M. Martin Jose  
Iraola, 10. 943 67 24 38.  
■ **Leitza.** Erbiti, O.  
Lizarraga kalea, 7. 112.

**ETZIDAMU**

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Olarreaga, I.  
Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.  
■ **Lekunberri.** Mendia, M. I.  
Aralar kalea, 25. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

**Agenda**

**DEIALDIAK**

■ **Zizurkil.** Gaur 19:30ean Peio Monteano soziologo eta historialariaren hitzaldia, Atxulondoko kultur etxean, *Nafarroako konkista, Belateko kanoiak, 1512* izenpean. Bihar, berriz,

12:00etan armari berria onartuko dute udalbatzan eta ondoren, udaltxea aurrean, armari berriaren aurkezpena; eta 17:30ean, Fermin Balentziaren emanaldia.

■ **Leitza.** Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketa, gaur, 22:00etan Atekabeltzen.

■ **Leitza.** Bihar, 18:30ean, Latinoamerikako jakiak dastatzeko eta dantzak ikasteko aukera, Atekabeltz gaztetxean.

■ **Tolosa.** Tolosa Zero Zabor taldearen auzokopostaren inguruko postua Trianguloan, goizean, eta 12:00etan konpostatzeari buruzko hitzaldia, Oargin.

■ **Anoeta.** Ibilaldi nordikoari buruzko ikastaroa 10:00etatik 13:00etara, bihar, kiroldegian.

■ **Larraul.** Kultur astearen barruan, gaur, 17:00etan umeentzako merienda eta eskulan tailerra; 19:30ean Juan Mari Beltran; eta 21:00etan, herri afaria. Bihar, 09:30ean Dina 7 taldeak egurra nola moten duen eraku-

tsiko du; 13:00etan, bolatoki ondoko horma aurkeztuko dute herritarrek; 16:00etan musean ariko dira; museoan dagoen aho soinu erakusketa ere irekiko dute arratsaldean; eta 18:00etan Teresa Lopez de Muñain ipuin kontalaria, kultur etxean. Igandean, 10:00etan mendi irteera hasiko dute; 16:00etan pilota partidak frontoian; eta 18:00etan talo eta gaztaina jatea, Katillo Txulo elkartearen.

**ZINEMA**

■ **Tolosa.** Leidorren gaur, 22:30ean, *Baztan*; bihar 19:30ean *Baztan* eta 22:30ean *Argo*; igandean 19:30ean eta 22:00etan *Argo*; eta astelehenean ikuslearen eguna, 20:30ean *Baztan*.

■ **Villabona.** Gurean bihar eta etzi, 17:00etan, *Tadeo Jones*.

**MUSIKA**

■ **Tolosa.** Bonberenean bihar, *Anai Arrebak* eta *The Spartens*, 22:30ean.

**ARTE ESZENIKOAK**

■ **Aduna.** *Kbaret* ikuskizuna,

gaur, 22:00etatik aurrera Asvinenean bertan.

■ **Tolosa.** Titirijai txotxongilo jaialdiaren barruan, gaur, 11:00etatik 14:00etara ikasle-entzako emanadiak: Leidor aretoan *El bandido cucaracha*, Topic zentroan *Cuidado con la Marimonda*, eta kultur etxean *Mi Miko*. 18:00etan, aldiz, saio irekia izango da Topic zentroan: *Cuidado con la Marimonda*. Bihar eta etzi saio irekiak; bihar 17:00etan Leidor aretoan, *El bandido cucaracha* eta 18:30ean, *Mi Miko*, Topic zentroan; eta etzi 17:00etan Leidor aretoan *Chodudú* eta 18:30ean Topic zentroan, *Siete cabritillos y el lobo*.

**Agurrak**



**Zorionak!**

**Aratz Alkain (Amezketeta).** 9 urte. Zorionak etxekoan partez, eta bereziki arreba Garazi eta osaba Josebaren partez.

**Tolosa&Co** **VISA**

**ABENDUA**

Lehen hamabostaldian

3,5eko deskontuak ezustean

**-%5**

30.ana Kalea 8 • 20400 TOLOSA  
Tel: 943 67 11 42  
www.diregatorgas.com

**arregi**

Gabonetako eskaintza berria

**Abenduaren 1etik 15era**

**Makillajea %10  
Kosmetikoak %20**

**SHUYANA**  
BERGINTZA

**Aprobetxatu gure deskontuak!**  
\*Metatu gabeko beharpenak